

Hilario Epelde Lizaso

*Zarautz,
Gipuzkoa (1947)*

Aurkibidea

Biografia



Zarauzko Santa Marina kalean jaioa, beti Zarautzen bizi izan da. Gurasoak, izeba-osabak eta aitona-amonak tolderoak izan ziren, Zarauzko hondartzan udan toldoak alokatzen zituztenak. Hilariok ere 26 urtera arte toldero lana egin zuen. Bere amonaren osaba batek (Etxabetarra) hil zuen 1878an Zarauzko azkenengo balea.

Zintak

ZAR-047

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-04-20
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun

Pasarteak

1. Zarauzko azkenengo balearen istorioa

- **Erref:** ZAR-047/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:02:16. **Bukatu:** 00:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Balea arpoiaz jotzen zuenarentzat izaten zen eta azken bale hura Hilarioren aitona, zarauztarra izatez, jo zuen. Marinel taldean getariarrak ere bazeuden eta, Zarauzko portura ekarri ordez, Getariara eraman zuten. Bale hura getariarrarena ala zarauztarra zen eztabaida piztu zen. Zarauzko bikarioak azken epaiketean balea zarauztarra zela erabaki zuenerako, balea ustelduta zegoen.

2. Baleak dirutza ematen zuen

- **Erref:** ZAR-047/006
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:04:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

Balea arrantzatzeak etekin handiak ematen zituen. Olio eta koipeak batez ere.

3. "Mila zortziehun eta setentaio txuan"

- **Erref:** ZAR-047/007
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:04:18. **Bukatu:** 00:05:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>1878. urtean gertatu zen istorio honen inguruko koplak kantatzen ditu. Kuadrillako hainbat kideen abizenak aipatzen dira kopla hauetan.</p>

4. Traineruak hondartzatik

- **Erref:** ZAR-047/008
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:06:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Zarauzko trainerua hondartzatik irteten zen. Urtean zehar egiten zituzten lan desberdinez eta hauen kokalekuaz ari da. Idiak erabiltzen ziren itsasontziak eta arrantzatutakoak lehorrera eramateko.

5. Barbarinak txaluparen jabeari ordainetan

- **Erref:** ZAR-047/009
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:06:12. **Bukatu:** 00:07:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Aberats baten txalupa erabiltzen zuen Hilarioren aitak arrantzarako. Arrantzatutako arrain guztiarekin geratzen ziren barbarinekin izan ezik. Txaluparen jabeari eman behar izaten zizkioten hauek ordainetan.

6. Bizi guztia toldero lanetan

- **Erref:** ZAR-047/011
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:09:16. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Aspalditik ibili da Hilarioren sendia toldero lanetan Zarauzko hondartzan. Baineroen garaian, tren geltokira joaten ziren bezero bila. Zer nolako zerbitzuak ematen zituzten azaltzen du.

7. Udatiar aberatsak hiru hilabeterako

- **Erref:** ZAR-047/012
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:10:34. **Bukatu:** 00:12:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Sasoi batean hiru hilabeterako etortzen ziren udatiarrak Zarautzera. Oporraldia laburtzen hasi zenean udatiarrak hanka egin ez zezaten Euskal Jaia antolatzen hasi ziren. Udatiarrak jatorri desberdinak aipatzen ditu. Klase handikoak askotan.

8. Oinez ikasi orduko, toldero

- **Erref:** ZAR-047/013
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:12:16. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Oinez ikasi orduko hasten ziren toldero lanetan. Adinaren eta altueraren arabera, lan desberdin bat zuen bakoitzak. Toldoak jarri eta kentzeko prozesua azaltzen du.

9. Fraideen toldoak lehenengo

- **Erref:** ZAR-047/015
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Igandero, toldoak jarri aurretik, mezatara joaten ziren. Meza ostean ipini beharreko lehendabiziko toldoak, fraideenak izaten ziren. Fraide eta apaizak ez ziren gainontzeko guztiekin batera hondartzan egoten. Ubideko zuloan, aparte egoten ziren.</p>

Transkripzioa

- Tolduak jartzeko, igandia baldin bazan, gu seirak laurden gutxiko mezeta juten giñan, Aita Zabala izaten huan. Bai, aurrengo meza, seirak laurden gutxiotan. Ta geo korrika tolduak jartzeara, ta normalian jartzen giñen Ostemarreko aurrekuan. Ostemar dek oain Muskaria.

- Hori dek

-Hor aurrekuan, zergatik, frailleen nobixiyuak baiñatzeko tolduak jarrita euki ber izaten zizkiyen. Bai, bai eta Ubideko zulua ere Fraillen hondartza huan, gure garaian.

-Baita, oraindikan ere batzuk edade pixkatekuak hola deitzen die / deitzeye/.

-Frailiak hemen hondartzan ordu normaletan atrebitzen ez zianak- edo, han nola iñor ez zan pasatzen ba, Ubideko zulua huan Frailleen hondartza. Hara juten hituan.

-Eta hara bai eh

-Bai, frailiak hara juten hituan.

-Baiña hara nobixiyuak ez.

-Ez, ez ya fraile iñak, fraile iñak juten hituan Ubideko zulua.

-Ubideko zulua, hori dek Getari bidean daon...

-Bai Zarauz ta Getariko muga.
-Muga iten dun.
-Buelta hoi iten una, zea pintauta nola dao, zea han bukatzen dek Zarauzkua, han bukatzen dek bueno ba hoixe dek, atze alde bat iten dun hori. Eta, ordun, hondartza juten giñen, aurrena biek iten ziyen batek karrua ta karrua kargatu hustutzen berriz´e kaxetatikan zea, toldua, ta karrua hartu eta behera bota, tapa-tapa bakoitza bere makil parian. Bitartian behekuak jarduten hituan aulkiyak ta inguratzen, bakoitza bere tokiyan jartzen, aulkiya eta silla, bakoitzak aulkiya ta bi silla beste batzutan.

10. Toldoei eusteko egurrik aproposena

- **Erref:** ZAR-047/018
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Toldoetako ziriak egiteko egur klaseez ari da.

11. "Mundua" deitzen genion toldo handienari.

- **Erref:** ZAR-047/019
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:22:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Koloreak erabiltzen zituzten toldoak identifikatzeko. Haizeak teilatu-hegalak bota ez zitzan aitzak egin zuen diseinu berria deskribatzen du eta baita "mundua" deitzen zioten toldo erraldoia ere.

12. Apropos egindako esmalteaz margotzen ziren toldoak urtero

- **Erref:** ZAR-047/020
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Urtero, negu partean, margotu egiten zituzten toldoak. Esmalte berezi bat erabiltzen zen horretarako.

13. Toldoak jarri ahal izateko bete beharreko baldintzak

- **Erref:** ZAR-047/022
- **Iraupena:** 0:05:26. **Hasi:** 00:24:38. **Bukatu:** 00:30:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Salmenta nolakoa izaten zen azaltzen du. Zumaiaiko komandantziak ematen zien baimena. Salbamendu zerbitzua ematen ere behartuta zeuden. Udaletxea egin zen honen kargu baina zergak ordaintzea eskatu zieten ordainetan. Arazo handia zen tolderoentzat.

14. Lanbide gogorra tolderoena

- **Erref:** ZAR-047/023
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:30:04. **Bukatu:** 00:33:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lanbide gogorra dela iruditzen zaio. Itsaso zakarra zeneko egun batean gertatutako anekdota kontatzen du.

15. Toldoak egiteko beharrezko gaiak

- **Erref:** ZAR-047/025
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Toldoak egiteko materialaz ari da. Oihala Bergaratik ekartzen zuten, uztaiak Olazabalenean erosten ziren. Arreba zaharrenak josten zituen etxean. Neguan hutsik eratzen ziren txaletetan gordetzen zituzten toldoak.

16. Lehertu gabe datorren olatuari "Txurroa"

- **Erref:** ZAR-047/027
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Itsasoko ur-lasterrak non dauden olatuei begira identifikatzea erraza da.

Olatua lehertu gabe datorren guneari "txurroa" deitzen diote. Bainurako oso arriskutsua baina surferako leku aproposena omen da hau. Arriskua adierazteko banderen kokapenaz hitz egiten du.

17. 8 senide 50 metro karratuko etxean

- **Erref:** ZAR-047/030
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:45:57. **Bukatu:** 00:47:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

50 metro karratuko etxean 8 pertsona bizi ziren eta gainera gela bat alokatzen zuten udan. Komedorea eta gurasoen gela ukiezinak zirela kontatzen du.

18. "Agacha la buru erregina, que olatu viene"

- **Erref:** ZAR-047/036
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:56:36. **Bukatu:** 00:59:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Garai hartako bainujantziez hitz egiten du. Lurrerainoko albornozak erabiltzen zituzten orkatilak ez erakusteko. Bere aita ez du sekula kamiseta gabe bainatzen ikusi eta inor bikiniarekin ikusten bazuten, aguazilari deitzen zioten. Baineroek eskutik helduta eramaten zituzten emakumeak uretara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com